

**GOBERNU JUNTAK 2022ko Urriak 10ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA (lehendakariordea)

ANTZUOLA

AINHOA LETE ZABALETA

BERGARA

ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

OÑATI

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATI

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

ANDER GARAY ZABALETA

ARRASATE

CRISTINA MARQUINA IGARZA

BERGARA

JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA

ESKORIATZA

IRAIZ LAZKANO

ELGETA

GORKA ARTOLA

BERGARA

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

AINHOA CABERO GARCIA

ARETXABALETA

MAITANE MUÑOZ GOIKOETXEA

ARRASATE

MARIA UBARRETXENA CID

ARRASATE

EUGENIO OTSOA UGALDE

LEINTZ-GATZAGA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2022ko urriaren 10ean, 11:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Inork ez dauka ezer esateko aurreko katari buruz, beraz, aho batez onartzen da.

2.-Kontu korronteak eta fondoak erabiltzeko sinadurak baimentzea.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazten du Juntak onartu behar duela Leire Ucin (idazkari-kontuhartzailea), bankuko operazioetan sinadura izateko.

Puntua bozkatzan dute, eta aho batez onartzen da.

3.- EEZ-CIE eskaerak onartzea, hala badagokio.

Enpresa ekintzetarako Zentroa

- Aitor Gallastegi Altuna (Reparaciones Gallas) Arrasateko 5-IM.

Ekintzaileak 2020ko ekainaren 12tik erabiltzen zuen lokala (Arrasateko 5-IM) 2022ko abuztuaren 31an laga zuen. Lokalaren egoera egiaztatu eta baja emateko prozedura guztia aurrera eramanez ondoren,

Gobernu Juntari zera proposatzen zaio:

Aitor Gallastegi Altuna (Reparaciones Gallas) ekintzaileari 1.071,60€ko fidantza bueltatzea.

Luzapen eskaera

- Ivan Gonzalez y otro CB / Biribil Ecolab. (Arrasate 3-IM)

2022ko azaroaren 2an urtea beteko da Ivan Gonzalez y otro CB (Biribil Ecolab) bere jarduerara Arrasateko 3-IM moduluan hasi zuenetik.

Ekintzaileak luzapena eskatu du bigarren urte baterako eta horretarako eskaera eta behar diren dokumentuak aurkeztu ditu.

Gaia aztertu ondoren, Gobernu Juntari zera proposatzen zaio:

Ivan Gonzalez y otro CB (Biribil Ecolab) ekintzaileari 2. urterako luzapena ematea Arrasateko 3-IM moduluan.

ESKATZAILEA:

Leire Urra Bengoa

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Txarapea 14 3ºEzk
 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
 D.N.I. 72735882-X
 Tfnoa: 680376893

EKIMENA:

ENPRESAREN IZAERA: BANAKAKOA - AUTONOMOA
 ENPRESAREN IZENA: UXUE OTXOA OSASUN ETA KIROL
 PSIKOLOGIA
 ENPRESAREN EGINKIZUNAK: Osasun eta Kirol Psikologiako
 zerbitzuak eskaintzea.

PROIEKTOAREN EDUKIAK:

PROIEKTUA	Leire Urra Psikoterapia
JARDUERA	Osasun Psikologikoko zerbitzuak
ERA JURIDIKOA	Banakako enpresaria
KAPITAL SOZIALA	6.000
LANGILE KOPURUA	Bat / enpresaria bera
HASIERAKO INBERTSIOA	4.280 €

Ekintzailea psikologian lizentziatua da eta horretaz gain giza baliabideen masterra eta psikopedagogian masterra ditu.

TUTORITZAREN TXOSTENA:

Prestakuntza egokia du proiektatu duen negozioa abian jartzeko, gainera prestakuntza gehigarria du giza baliabideen kudeaketan eta psikopedagogian. Eskarmentu profesional luzea du hizkuntza aholkulari eta hezkuntza orientatzailea moduan. Bestalde, ez du finantzazio handirik behar eta ez du mailegurik eskatuko. Beraz, proiektuak ez ditu karga finantzariorik. Ekintzaileak Aretxabaletan kokatzea nahi du bere enpresa bera bertan bizi delako.

ESKATZEN DIREN LOKALAREN EZAUGARRIAK:

Garatu behar duen aktibitatearen eskakizunei erantzuteko 20-25 m2 inguruko lokala beharko luke.

BATZORDEAREN PROPOSAMENA

BALIOESTEKO IRIZPIDEAK	
🕒 Sustatzaile(ar)en egokitasuna/bateragarritasuna enpresa ideiarekin	6
Ekintzaileak prestakuntza egokia du psikologia eta giza baliabideen kudeaketan eta psikopedagogian trebatua dago eta esperientzia laboral luzea du (EMUN eta E.J.ko Hezkuntza Sailean).	6
🕒 Proiektuaren eduki teknologiko eta berritzaileak	6
Proiektuak ez du eduki teknologiko aipagarriarik. Kokatu behar den merkatuan beste antzeko eskaintzak daude baina Debagoiengan beharra egon daiteke.	3
🕒 Proiektuaren ekonomia eta finantza-bideragarritasuna	10
Gastu eta inbertsioak finantzatzeko ekintzailearen kapital propioa erabiliko da.	10
🕒 Zuzenean sortuko dituen lanpostuak	6
Ekintzaileak bakarrik lana egingo du.	3
🕒 Sustatzaile(ar)en bizilekua	6
Aretxabaleta	6
🕒 Jarduerarekin edo ekintzaile-prestakuntzarekin zerikusia duten ikastaroetara joan izana	6
Ikastaroetan parte hartzeko prest agertu da	3

Aurkeztutako proiektuak EEZ-CIEko egitarauan sartzeko gutxienezko puntuaketa gainditzen duenez, Batzordeak onespena ematen dio eta erabakitzen du Gobernu Juntari ondorengoa;

PROPOSATZEA

Eskaera onartzea, eta Aretxabaletako EEZ-CIEko zerbitzu erako 3-AR modulua uztea.

- Sofía Ruiz (Divinaio) Arrasateko 4-IM.

Ekintzaileak 2020ko azaroaren 8tik erabiltzen zuen lokala (Arrasateko 4-IM) 2022ko uztailaren 31an laga zuen. Lokalaren egoera egiaztatu eta baja emateko prozedura guztia aurrera eraman ondoren,

Gobernu Juntari zera proposatzen zaio:

Sofía Ruiz (Divinaio) ekintzaileari 656,61€ko fidantza bueltatzea.

Puntua bozkatzan dute eta aho batez onartzen da 3. puntua.

4.- Innobasquerekin Hazinnova programa garatzeko hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Garazi Larreak azaltzen du Lankidetzeta-hitzarmena, enpresa txiki eta ertainen jarduera berritzailea sustatzeko eta sistematizatzeko ekimena garatzeko asmoarekin proposatzen dutela Mankomunitateak hitzarmena sinatzea Innobasque-rekin.

Puntua bozkatzan dute eta aho batez onartzen da Debagoieneko Mankomunitatea eta Innobasque-k hitzarmena sinatzea.

5.- Zainlab II aholkularitza programa sustatzeko SSI (Home Care Lab, S.Coop)ekin hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Zainlab II aholkularitza programa sustatzeko SSI (Home Care Lab S.Coop.)ekin hitzarmen proposamena.

"Zainlab II" izeneko proiektuak zilar ekonomian ekiteko gogoia duten ekintzaileei edo aktibitate bat dituzten pertsona edo enpresei segmentu horretara bideratzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. Horretarako bost "talde saioak" egingo dira ideiak lantzeko eta ondoren sakontzea nahi duten ekintzaileekin banakako beste lau saio garatuko dira. Zilar ekonomian aukera interesgarriak sortu daitezke eta horretan aritzeko orientazio bat izateak bideak erraztu dezake.

Dagoeneko programan parte hartzeko zortzi pertsonen eman dute izena eta ekintzak hile honetan hasiko dira.

Puntua bozkutzen dute eta aho batez onartzen da.

6.- 2022ko Enplegu Plana garatzeko udalekin hitzarmena onartzea, hala badagokio.

2022ko maiatzaren 20an argitaratu zen Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez onartutako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko ekitaldiko laguntzen deialdia. Horren arabera 377.639,00€ko diru-laguntza onartu zen Debagoieneko eskualderako. Udalek egindako kontratazio proposamenak kontuan hartuta, Debagoieneko Mankomunitateak 377.639,00€ko eskaera bideratu zuen Lanbidera. Orain, (2022ko iraila) Lanbidek Debagoieneko Mankomunitateak egindako eskaerari oniritzia eman dio eskaerari dagokion ebazpena emanaz.

Debagoieneko eskualderako 377.639,00 euro bideratuko dira udalek proposatutako kontratuak egin ahal izateko.

Debagoieneko Mankomunitateak diru-laguntzaren %53a, hau da, 200.148,67€, hasierako ordainketa jasoko duenez, udalekin sinatuko diren hitzarmenetan jasotako kopuruen %53a udalei ordaintzea proposatzen da.

UDALERRIA	2022ko Programa Ebaztutakoa	2022ko Programa Laguntzaren %53
ARRASATE	162.500,00	86.125,00
BERGARA	77.591,51	41.123,50
OÑATI	53.172,11	28.181,22
ARETXABALETA	25.000,00	13.250,00
ESKORIATZA	24.528,00	12.999,84
ANTZUOLA	12.500,00	6.625,00
ELGETA	11.454,09	6.070,66
LEINTZ GATZAGA	10.893,29	5.773,45
GUZTIRA	377.639,00	200.148,67

Bigarren ordainketa programaren kitapena egin ondoren eta Lanbidetik dirua jasotzen denean egingo da.

Udalek ordainketa horiek jaso ahal izateko bete beharko dituzten eginbeharrak adosteko, Mankomunitatea eta udalen arteko hitzarmenak sinatzea proposatzen da.

Puntua bozkutzen dute eta aho batez onartzen da 2022ko Enplegu plana garatzeko udalekin hitzarmena sinatzea.

7.- Zubillagako hiltegian instalazio fotovoltaikoa jartzeko gastua onartzea, hala badagokio.

Idazkariak adierazten du 79.000 Euroko aurrekontua aurreikusten dela Zubillagako hiltegian plaka fotovoltaikoak jartzeko.

Puntua bozkutzen dute eta aho batez onartzen da.

8.- Zubillagako hiltegian instalazio fotovoltaikoa jartzeko kontratazioa arautzen duten administrazio-pleguak eta teknikoak onartzea, hala badagokio.

Debagoieneko Mankomunitateak garatzen dituen aktibitateek sortzen dituzten CO2ko isurketak murrizteko konpromisoa du eta, batera, aldaketa klimatikoaren aurkako zenbait ekimen garatu ditu. Ekimen horien bidez, eskualdeko hainbat udalerrietan kanpoko argiztapena LED teknologiarara aldatu da eta eskualdeko eraikin publikoetan instalazio fotovoltaikoak bultzatu dira, konkretuki Mankomunitateko egoitza nagusian 15 Kw-ko instalazio fotovoltaiko bat jarri zen. Ildo horretan jarraituz, orain Zubillagako hiltegian beste instalazio fotovoltaikoa jarri nahi da.

Debagoieneko hiltegiako aktibitateak, instalazio, tresna eta makinaria elektrikoaren erabilera intentsiboa eskatzen du eta ondorioz, kontsumo elektrikoaren maila ere altua da. Kontsumo horiek murrizteko Oñatiko Zubillaga auzoan dagoen hiltegiako eraikinaren teilatuetan 70 kWpko instalazio fotovoltaiko bat garatzeko aurre ikerketa egin zuen Mankomunitateak eta hori gauzatzeko beharrezkoa den kontratazio prozedura abian jartzea nahi du.

Proiektua gauzatzeko, modulu fotovoltaikoak, inbertsorea eta beste ekipamenduen hornikuntza kontratatu behar da, era berean, horien instalazio eta funtzionamenduan jartzeko behar diren proiektuak eta era guztiko lanak eta tramitazioak kontratatzea proposatzen da. Horrekin batera, eta ekimenak eskatzen duen inbertsioa murrizteko, proiektuari dagozkion diru-laguntzen tramitazioa ere kontratatistak egin beharrekoetan sartuko litzateke. Horretarako beharrezkoak diren plegu administratiboak eta baldintza teknikoaren agiriak aurkezten dira.

Bozkatzeko dute eta aho batez onartzen dira Zubillagako hiltegian plaka fotovoltaikoak jartzeko administrazio-pleguak eta plegu teknikoak.

9.- Epeleko isurtegiko obra dela eta, azterketa geotekniko osagarria egikaritzeko gastua onartzea, hala badagokio.

Azterketa geotekniko gehigarria egiteko gastua 23.000 Euro + 4.830 (BEZ) : 27.830 Eur

Bozkatzeko dute eta aho batez onartzen dute azterketa geotekniko gehigarri egiteko 27.830 Euroko gastua.

10.- Epeleko isurtegiko obra dela eta, azterketa geotekniko osagarria egikaritzeko administrazio-pleguak eta plegu teknikoak onartzea, hala badagokio.

Epele zabortegiko ikerketa geoteknikoa osatzeko kontratua. Haserako txostena

Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea izango da Epele zabortegian egindako ikerketa geotekniko handitu eta osatzea, helburu hauetarako:

1. *In situ* egindako entsegu edota proben bidez, zabortegiaren egonkortasuna baldintzatzen duten materialen benetako parametro geoteknikoak zehaztea. Parametro horiek Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB) eskatzen diren segurtasun-faktoreak zehazteko erabiliko dira.
2. LURGINTZA INGENIERÍA GEOLÓGICA S.L enpresak aurrez egindako azterketa geoteknikoa osatzeko, bertan jasotako egoera/eszenatoki guztietarako segurtasun-faktoreak ("FS") berriz kalkulatzea.
3. Egindako azterketa geoteknikoak beharrezkotzat jotzen badu, proposatutako egonkortze-neurrien aurreproiektu bat egitea (diseinua eta balorazio ekonomikoa), zabortegiaren segurtasuna areagotzeko.
4. Azken batean, zabortegiaren egungo egoera geoteknikoa eta hura ustiatzeko egonkortasun-baldintzak baloratzea, IBB-n baimendutako 380 m-ko kotaraino.

Kontratuaren premia eta egokitasunaren justifikazioa

2018ko irailean Epele zabortegia kanpo-erabiltzaileentzat itxi ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak zabortegia berrirekitzea erabaki zuen 2022 hasieran. Horretarako zelda berriko 2.fasea zigilatu eta 3.fasea egokitzeko obra egin behar da. Obra hau egin aurretik, zabortegiaren egoera geoteknikoa eta egonkortasuna baloratzeko azterketa egin du LURGINTZA INGENIERÍA GEOLÓGICA S.L enpresak. LURGINTZA-k aurkeztutako txostena aztertuta, Ingurumen Zerbitzu teknikitik hainbat zalantza tekniko helarazi ziren. Zalantza gehienak argitu dituzten arren, oraindik ez dute guztia argitu. Horrez gain, euren eskaintzan jasotako bi azterketa espezifiko egiteke daude eta hauek aurkeztea beharrezkoa da. Azkenik, LURGINTZA-k bere txosteneko ondorioetan argi adierazten du egindako azterketa geoteknikoan lortutako segurtasun-faktoreak oso mugan daudela eta, ondorioz, ikerketa geoteknikoa handitu eta osatzeko gomendioa egiten du. Hau kontuan izanik, gomendioa erabat jarraitu eta zabortegia berrirekitzeko gutxieneko segurtasun faktoreak bermatzen direla baieztatzeko, ezinbestekoa da azterketa geotekniko handitu eta osatzea.

Baliabide-urritasuna

Azterketa hau lan geoteknikoetan espezializatutako enpresa aditu batek egin behar du ezinbestean. Mankomunitateko teknikariok ez dugu mota honetako azterketa bat egiteko espezializazio eta esperientzia teknikorik eta, ondorioz, ezinbestean azterketa hau kontratatu beharra dago.

Prozedura: Irekia / **Tramitazioa:** Presazkoa

Kontratuaren epea

Enpresa lizitatzailleak 8 asteko epea izango du azterketa geotekniko gehigarri egiteko, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita.

Kaudimen tekniko edo profesionala

Gaitasun teknikoa egiaztatzen duten agiriak: azken hiru urteetan egindako zerbitzuen zerrenda aurkeztu beharko da, baldin eta kontratu honen xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzekoa badute, eta horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazi beharko dira.

Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko dira edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten eta haiek egin direla frogatzen duten dokumentuen bidez. Behar denean, ziurtagiri horiek agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio kontratazio organoari.

Exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratu honen balio zenbatetsiaren berdina edo handiagoa izan beharko du.

Kontratua loteka ez banatzeko justifikazioa

Azterketa geotekniko hau osotasun batean gauzatzea ezinbestekoa da, horretarako beharrezko diren landa eta laborategi entseguak barne hartuz. Azterketa, beraz, ezin da atal edo lote ezberdinetan banatu, banaketa hori azterketa beraren funtsa eta helburuen kontra joango bailitzateke. Ondorioz, kontratu hau ez da lotetan banatu.

Baldintza berezia

Kontratu honetarako ez da ingurumenarekin zerikusia duen baldintza berezirik jartzea aurreikusten. Gizarte baldintzei dagokien baldintza berezi bat ezarriko da.

Kontratuaren lizitazio prezioa

Kontratuaren balio zenbatetsia 23.000 €-koa da.

Proposatutako esleipen irizpideak. Justifikazioa

- Proposamen ekonomikoa: 55 ptu.
- Balio judizio baten menpe dauden esleipen irizpide teknikoak: 45 ptu:

Honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Aurkeztutako planteamenduaren koherentzia eta plegu honetan zehaztutako helburuekiko aurreikusitako betetze-maila.
- Instrumentazioa, erabili beharreko makineria eta ikerketarako duten dedikazio-maila.
- Proba geofisikoak, landa-saiakuntzak eta laborategi-saiakuntzak egitea.
- Neurketa- eta kontrol-elementuak instalatzea, horien balio-bizitza kontratuaren iraupenetik harago luzatzen bada.

Balio judizio baten menpe dauden esleipen irizpideei dagokionean, gutxieneko puntuazioa (22,5 puntu) eskuratzen ez duten eskaintza teknikoak kanporatuak izango dira.

Kontratu honetan oso kontuan hartzekoa da jasotako proposamenen maila teknikoa eta aurkeztutako alternatiba ezberdinen egokitasun teknikoa. Hori dela eta balio judizio baten menpe dauden esleipen irizpideei %45-ko pisua ematea proposatzen da.

Puntua bozkatzan dute, eta aho batez onartzen dira azterketa geoteknikoa egiteko plegu teknikoak eta administrazio-pleguak.

11.- Galdera eskaerak.

Lehendakariak Elorregiko auzoan dagoen autobus geltokian komuna jartzeko obrari dagokion hitzarmenaren baldintzak komentatzea gustatuko litzaiokeela esaten du: mantenuari dagozkion kostuak Bergara, Arrasate eta Oñatin artean banatuko dituzten, edo Mankomunitateko kide diren herri guztiek parte hartuko duten.

Elgetako Alkateak adierazten du, ikusirik Elgetak duen autobus zerbitzu eskasa, printzipioz beraiek ez luketela ordaindu beharko, baina denan artea finantzatzea erabakitzen bada, onartuko dutela.

Aretxabaletako Alkateak dio beraiek ere badutela horrelako komun bat, bide gorrian, eta Aretxabaletako Udalak finantzatzen dituela mantenuari dagozkion kostuak.

Gai horri dagokionez, ez dute ezer erabakitzen.

Ander Garayk esaten du Mankomunitateko langileek idatzi bat sartu dutela Gobernu Juntari zuzenduta dagoena. Lehendakariak erantzuten dio hurrengo Pertsonal Batzordera eramango duela.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA